

## KRONIKA-GOGOETA-KRITIKA



### EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA: DENONA

Eskola da euskararen berreskurapenaren oinarri nagusi-nagusietako bat. Ikastolaren bidez baieztatu izan du hori urte luzetan euskal gizar-teak. Motore guztiz garrantzizkoa izan da ikastola; baina eskola-munduaren sail oso mugatua hartu izan du ikastolak, goreneko urteetan ere. Ez zegoen uste izaterik ikastolekin bakarrik irakaskuntza euskalduntzera iritsi gintezkeenik; eskola publikoan eta eskola pribatuan zeukan sartu beharra euskarak: bi sektore indartsuok irabazi beharra zegoen barrutik euskalduntze-prozesurako, ez kanpotik eraginez bakarrik.

Hala ere, oso nekez lortu du eskola publikoak euskaldunon konfiantza euskararen berreskurapenerako tresna izatekoa, gure gizartea des-euskalduntzeko tresna historiko beldurgarriena izateari utzita. Agian batek baino gehiagok egin zuen amets eskola estatal hura, desagertzearekin ere, eta horren lekua euskal eskola berriak, herritik eta euskal mugimendu sozialetik sortuak -ikastolak, alegia- osorik hartzearekin, EAEn behintzat. Inoiz inolako errealismo-itxuraren bat eduki bazuten amets horiek, amets huts geratu ziren iazko gorabeheren ondoren, hainbat ikastola sare «publiko autonomora» igaro zirenetik. Apos-tua garbi zegoen, beraz, euskaldunontzat -EAEn, Nafarroan eta Iparraldean-: eskola «publikoa» euskaldundu, pribatuarekin batera; garbi behar zuen egon horrek ikastolen alde eta horien barruan zihardutenentzat ere, irakaskuntza osoa euskalduntzeko motore izateari uko egingo ez bazion horrek.

Apirilaren 2an ospatu zuten EAeko eskolek Euskal Eskola Publikoaren eguna Bilbon. Laugarren aldia izan zen aurtengoa. Horren goiburua: «Euskal Eskola Publikoa: Denona». Bizkaiko Ikasleen Gurasoen Elkar-terko Lehendakaria den Ana Izagirrek honela azaldu zuen, besteren artean, «Denona» horren esanahia: «*Una escuela que ha apostado muy fuerte por el proceso de euskaldunización y hoy es uno de los baluartes en el proceso de normalización de euskara*». Baieztapen hori berorren baikortasunean onartuz ere, jakin behar dugu EAeko eskolari buruz ari dela bakarrik. Gainera apostua egitea da gauza bat -behar beharrezkoa-; apostua irabaztea da bestea. Oraindik urruti dago EAeko eskola ere ikasle guztiak euskalduntzeko tresna izatetik; euskararen normalkuntzarako bidean bere eginkizuna beteko badu, urrats handiak ditu egitekoak oraindik -Bizkaiko %14 eta Arabako %17 eskola publikoko haur berriak A ereduari matrikulatu dira, jakin dakigunean eredu horrek ez duela inola ere haurrak euskalduntzea lortzen-. Egia da, hori bai, eskolak bere euskalduntzea-helburua egoki beteko badu, inguruko baldintza soziolinguistikoak eta soziokulturalak dagoela aldatu beharra; apostu eta ahalegin eta guzti, eskolaren eragina erdi huts geratzen da, gizartearen eta kulturaren euskalduntze prozesu osoak ez inguratzean. Eta horrek balio du, baita ere, ikastolarentzat, D ereduko guztientzat eta B eredukoentzat.

Eskolaren munduak azken urteotan izan dituen gorabeherak -bereziki ikastolen eta publikoaren ingurukoak- gogoan izanik, eta Eskola Publikoaren jaialdiaren antolakuntza ikusirik, nekez bazter daiteke susmoa, ikastolen urteroko jaialdien (Arabako «Araba Euskaraz», Bizkaiko «Ibilaldia» eta Gipuzkoako «Kilometroak» izeneko) lehian datorrela hori. Gainera, ikastolen jaialdiei buruz erakunde publikoak hoztu diren neurrian Publikoaren jaialdiari buruz berotu direla ematen du. Dena dela, ongi etor bedi lehia hori, kontua baldin bada, irakaskuntzaren kalitate hobea sare bietako zeinek hobeto irakatsi eta zabaldu. Ziur egon gaitezke urte askotan ikastolen jaialdiak kemenez eta su handiz lagundu dituzten hainbat eta hainbat herritarrek gogo biziz -agian biziagoz- hartuko duela parte eskola publikoaren jaialdietan, publikoa eta «denona» izatearekin batera, euskararen berreskurapenaren apostua zinez jokatzen baldin badu.

Jakin badakigu beste nonbait dagoela une honetan lehiarik eta konkurrentziarik handiena eskola-sare ezberdinen artean gaur egun: nabarmen geratuko da hori eskola-mapa berria diseinatzeko dagoen honetan. Horretarako irizpide nagusietako bat ikasle guztiak euskaraz eskolatzeko eta eskolatik benetan euskaldundurik ateratzeko bal-

dintzak sortzea izan behar duela uste dugu; hori guztiz aintzakotzat hartzen ez baldin bada, atzerapausoa emana izango dugu euskal eskola euskalduntzeko prozesuan.

Eta euskal eskola publikoaz eta ikastolaz ihardun garenez, zer esan eskola pribatuaz? Euskal Herri osoan indar handi-handia du eskola pribatuak, gehienbat erlijiosoen (fraideen eta seroren) eskuetan. Barrutik nahiz kanpotik, behetik nahiz goitik, eraginez, horiek denak zinez euskalduntze-prozesuan sartzeko apostua irabazten ez den bitartean, oso motz geratuko gara euskal eskola euskalduntzeko bidean. Eskola publiko erdaldunarekin batera, eskola pribatuak, osoak, du bere gain hartu beharra bere erantzukizun historikoa, euskararen berreskurapen osoaren aldekoa, herri honen deseuskalduntzean izan duenaren parekoa.

#### **EUSKARAREN DIRU-KONTUAK**

Garbi dago maldan behera joan direla euskararen normalkuntzarako diru publikoak azken bost urteotan: urtez urte beherago, oro har. 1995eko aurrekontuetan ere behera egin dute EAEn eta Nafarroan: Azken honetakoak onartuta daude dagoeneko; EAekoak onartuta egongo dira, gogoeta hau argitara emango denerako, baina oraindik eztabaidapean daude. Beraz, aurrekontuen proiektuari buruz ari gara: %19,11 jaitsi dira euskararen sustapenerako EAeko Kultura Sailaren aurrekontuak (HPIN barne) azken bost urteotan, KPI (Kontsumo-Prezioen Indizea) kontuan hartuta. Orain dela hiru urteko jaitsiera larriaren aurrean Kultur Kezka sortu zen, euskal kulturako hainbat elkar-te eta indar bildu zituena, egoeraren aurrean protesta egiteko; aurten-goan Euskaltzaindiak jarri du bere garraisia aidean. Haren garraisia ez zuen eraginik izan nonbait ondoren; Euskaltzaindiarenak izango al du? Dena dela, Euskaltzaindiaren aurrekontuak bakarrik igotzeak ez luke konponduko euskalgintzako beste proiektu, talde, elkarte eta enpresaren egoera. Horietako askok egin behar izan dituzte beren beharantzako doiketak azken urteotan.

Ez gara hemen aurtengo aurrekontuen (EAekoan, Nafarroakoan edo Iparraldekoan) xehetasunik ematen hasiko. Aldizkariaren zenbaki honetan bertan aurkitu ahal izango ditu datu xeheak eta horien funtsezko interpretazioa irakurleak. Gauza bat dago argi edonorentzat: aurrekontuak eta diru-laguntzak behera doazelarik, nekez egin ahal izango duela euskararen normalkuntza-prozesuak une honetan eskatzen duen aurreranzko jauzi koalitatiboa. Euskararen berreskura-

pen politikan geldirik gelditzea atzera egitea baldin bada, aurrekontuetan galtzen den puntu bakoitza bi urrats atzera egitea da. Azken aldian euskararen berreskurapenaren prozesuak jasaten dituen erasoei aurre egiteko modu bakarra, ordea, aurrera-urrats berria, tinkoa eta ausarta, egitea da; hori bakarrik izango da, baita ere, herritarren aldetik euskararen aldeko jarrera eta berreskurapenaren esperantza suspertzeko modua.

Horregatik kritika eta azterketa sakon-zorrotzak egin beharra dago euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren finantzaketari buruz aurrera begira: Diruzko eta bestelako laguntza publikoen sistemei buruz, baita finantzabide pribatu eta sozialei buruz ere. Ez dugu oraingoan horretan sartu nahi, ordea.

Badirudi, funts-funtsezkotzat onartuta dagoela ekimen soziala euskararen normalkuntzaren bidean; hainbat talde, elkarte eta erakundetan gorpuztu izan da hori. Euskarak berak bizi duen egoera guztiz eskasean eta larrian bizi behar izan dute derrigorrez eta sistematikoki horiek; aregotu egingo da okerrera egoera hori, beste nonbaitetik laguntza apartekorik ez baldin badago. Eskasia eta larritasun sistematikoan dihardutenek, ordea, nekez aterako dute eskasiatik eta larritasunetik euskara.

Horregatik, eta euskararen berreskurapen osorako politika zuzenari begira, funtsezko bi irizpide hauek bete behar ditu euskalgintzako talde, elkarte eta erakunde sozialak sustatzean eta laguntzean:

1. Euskal kulturgintzako proiektuek eta obrek dinamika sozial eta kultural zabalaren premia dute, benetan aurrerabide sendorik izango badute; euskarazko produktuen eskabide soziala dago zabaldu beharra. Horregatik ez da nahikoa proiektu eta obra konkretuei nolabait eusteko laguntza ematea. Horien sustapen-programak landu eta aurrera bultzatzeko ere behar-beharrezkoa dute laguntza euskalgintzako ekimen sozialeko proiektuek eta obrek. Hori oso kontutan behar dute izan erakunde publikoek euskalgintzako diru-laguntzak programatzean.

2. Helburu soziala eta nolabait «publikoa» duten elkarte eta erakunde herritarren finantzapenaren arazoa harrotu da azken aldi honetan -horri buruzko «Liburu zuria» lantzea ere iradoki da-. Guztiz garrantzizkoa da arazoa, benetako demokrazia eraikiko baldin bada. Baina bereziki larria da euskararen berreskurapen osorako eragintza soziala daramaten talde, elkarte eta erakunde herritarrentzako. Euskararen aldeko mugimendu soziala suspertzeko eta koordinatzeko horien egin-

kizuna onartua dute hizkuntz politika daramatenek oro har; areago, beharrezkotzat jotzen dituzte horiek, hitzez behintzat. Baina ondorioak atera behar dira: ez da aski horien ekintza jakin batzuk, agintariei une bakoitzean egokiak iruditzen zaizkienak, diruz laguntzea. Talde, elkarte eta erakunde horiek betetzen duten eginkizun sozial iraunkorra onartuz gero, horiek eguneroko iharduerarako eta funtzionamendurako behar duten laguntza publikoa bideratzeko moduak bilatu behar dira.

### **GARAZI-GASTEIZ KORRIKA**

KORRIKA 9garrena amaitu berria da: Martxoaren 17tik 26ra bitartean. Garazin abiatu eta Gasteizen burutu. Tartean 2.150 kilometro korrika. Zalantzarik gabe euskararen alde egiten den agerraldi sozialik eta manifestaldirik garrantzizkoena da, eta jendetsuena: 600.000tik gora lagunek hartu du parte; inoiz baino gehiago aurtengoan. Eta Gasteizko amaiera apoteosikoa izan zen benetan: jendetzaren aldetik, partaideen berotasunaren aldetik, leku paregabearen aldetik. Zorionak eta aurrera, AEK antolatzailea! Eutsi urraturiko bideari, korrikalari guztiok!

Izan ere, Etxepareren «Euskara, jalgi hadi plazara» kantaren oihartzun hura erantzukizun bihurtu da KORRIKAren bitartez, partehartzaile guztientzat eta euskaldun ororentzat: «Jalgi hadi euskaraz». Ederra da Etxepareren irudia: euskara dantzariarena; baina euskarak ez daki berez dantza egiten, ez da berez bizi (edo hiltzen); euskaldunongan, euskal hiztunongan bizi da (edo euskaldun mutuengan hiltzen), euskaldunok eragin diezaiokegu bakarrik dantzan. Horixe agertu dute aurtengo korrikalariak: Euskara plazara dantzara ateratzeko gogo eta asmoa.

Eta Gasteiz erdialdeko plaza guztiak hartu zituen euskarak azken egunean. Zalantzarik gabe esanahi berezia eduki du aurtengo KORRIKA Gasteizen amaitzeak: hunkituta eta pozik ikusi genituen Gasteizko eta Arabako euskaldunak, azken hilabeteotan euskararen berreskurapen-prozesuaren aurka jasan behar izan dituzten eraso berezien ondoren; Araba euskaldunaren baieztapen tinkoa eta arabar guztiak euskalduntzeko borondate beroa nabaritu ziren Gasteizko kaleetan eta plazetan. Bada hortik KORRIKAren eta antzeko manifestaldien kontra dagoenik. KORRIKAK berak antolaturiko mahainguru batean entzun genizkion horietako bati beraren "arrazoiak" hobeto esanda, desarrazoiak. Bes-

teren artean kontzientzi lasaitzaile besterik ez omen dira horrelako ekitaldiak parte hartzen duten askorentzat. Ez du erantzun zaila horrek. Hasteko, ez dugu ezagutzen horrelakorik egiaztatzeko test psikologikorik egina denik; gainera nekez izan daiteke kontzientzi lasaitzaile, horixe zirikatzen datorren ekitaldia. Aurtengo KORRIKAren goiburua izan da, hain zuzen ere, horren adibiderik argiena, bakoitza eginkizun baten aurrean ipini baitu: «Jalgi hadi euskaraz». Argi dago, euskararen berreskurapen-prozesua bidegintza kolektiboa dela, Euskal Herri osoarena; herritar bakoitza dago egoera linguistiko ezberdinean euskararen kontra dagoen erdaltzalea, euskarari buruz kezkarik ez duen erdalduna, euskara ikasten edota hobetzen ari dena, euskara jakinik alfabetatzen ari dena, euskaraz bizitzen saiatzen dena, etab. Euskararekiko jarrera negatiboan daudenak positiborako bidean jartzea, eta egoera positiboan daudenak hobetarako ahaleginean ipin-tzea da, hain zuzen ere, KORRIKA eta antzeko ekitaldien eginkizun nagusietako bat. Horregatik euskararen aldeko agertaldi horietan jende batzuk erdaraz egiten entzuteak ez du, besterik gabe behintzat, horien zirikatze-helburua ukatzen. Herritarren abiaburu ezberdinak eza-gutzearekin batera, helburu bakarra eta berbera seinaltzera datoz euskararen aldeko ekitaldi sozialok: Herritar guztiak euskaldun osoak egitea, euskararen berreskurapen osoaren bidetik.

Eta helburu horrezaz gain, badute bestelakorik ere ekitaldi-jaialdi horiek: Euskararen baieztapen soziala, euskara "ospatzea", euskararen aldeko errebindikazioa, euskararen berreskurapenerako proiektuak finantzatzea: garrantzizkoak dira horiek ere. Beharrezkoak.

Bederatzigarren KORRIKA hau Euskaltzaindiaren Bilboko aretoan aurkeztu zuten. Eta Euskaltzaindiak berak Garaziko abiapuntuan ipinitako mezua metroz metro eta kilometroz kilometro Euskal Herrian zehar ibili ondoren, Euskaltzaindiaren idazkariak aldarrikatu zuen Gesteizen tamalgarria izan zen, hori bai, idazkaria prentsaren aurrean Euskaltzaindiaren arazo ekonomikoez kezkatu izana, eta ez zuzenean AEKren arazoez, egun seinalatu horretan, hain zuzen ere. Dena dela, adierazgarria eta pozgarria izan da bi erakundeen arteko hurbilketa: euskalgintzako indarren hurbilketaren seinale. Euskaltzaindiaren babesean egindako lehen KORRIKAren ondoren, nolabaiteko urruntasuna nagusitu baitzen urtetan Badirudi gainera AEK eta KORRIKArekiko bestelako indar politiko eta sozial batzuren urrunaldia sarritan etsaitasuna eta eraso neurri batez behintzat gaituta geratu dela aurtengoan. Fruituen zain, aurrera begira.